



JIMENO ARANGUREN, Roldán

Zuzenbidearen Historiako irakaslea
Nafarroako Unibertsitate Publikoa
Arrosadiako Campusa
31006 Iruñea
roldan.jimeno@unavarra.es

BIBLID [1137-1951 (2004), 12; 21-31]

Sarrera eguna: 2003.10.20
Onarpen eguna: 2004.05.10

Euskal izendegia eta Espainiako legegintzaren ibilbide historikoa

(Basque nomenclature and the historical development of Spanish legislation)

XIX. mendeko azken hamarkadetan, Sabino Aranak bultzada handia eman zion euskal izendegiari, eta hurrengo mendean zehar, Euskaltzaindiak izendegiaren inguruko ikerketak burutu zituen, memento bakoitzean indarrean zegoen Espainiako legeriari so eginez: 1919ko Erret Dekretua, Errepublikaren etorrera, 36-39ko Gerra osteko legegintza gogorra, Francoren Erregimenaren irekierak 1966tik aurrera dakartzan aldaketak, Trantsizioko 17/1977 Legea, eta azken araugintza. Euskaltzaindiaren euskal izendegi ezberdinek isla handia izan dute beti gizartean.

Giltza hitzak: Zuzenbide historikoa. Izenak. Legegintza zibila. Erregistro zibila. Euskaltzaindia. Euskal izendegia.

En las últimas décadas del siglo XIX, Sabino Arana dio un importante impulso a los nombres vascos, y a lo largo del siglo XX Euskaltzaindia realizó diversas investigaciones en torno a los nombres de pila, atendiendo a la legislación española vigente en cada momento: el Real Decreto de 1919, la apertura de la República, la legislación restrictiva de la posguerra, los cambios a raíz de la apertura del régimen de Franco a partir de 1966, la Ley 17/1977 de la Transición, y el último desarrollo normativo. Los nomenclatores onomásticos de Euskaltzaindia siempre han tenido un importante reflejo en la aplicación por parte de la sociedad de tales nombres.

Palabras clave: Derecho histórico. Nombres. Legislación civil. Registro civil. Real Academia de la Lengua Vasca. Nomenclátor vasco.

au cours des dernières décennies du XIXème siècle, Sabino Arana donna une importante impulsion aux noms basques, et tout au long du XXème siècle l'Académie de la langue basque réalisa diverses recherches concernant les prénoms, s'en remettant à la législation espagnole en vigueur à chaque moment: le Décret Royal de 1919, l'institution de la République, la législation restrictive de l'après-guerre, les changements à la suite du régime de Franco à partir de 1966, la Loi du 17/1977 de la Transition, et le dernier développement normatif. Les nomenclateurs onomastiques de l'Académie de la langue basque ont toujours eu une grande incidence sur l'application de tels noms de la part de la société.

Mots clés: Droit historique. Prénoms. Législation civil. Bureau de l'état civil. L'Académie de la langue basque. Nomenclateurs basques.



1. Sarrera. 2. Izenak historian zehar. 3. Sabino Aranatik Resurrección M^a de Azkuera. 4. Gerra osteko legegintza. 5. 1957ko Legea eta 1958ko Dekretua. 6. Erregimenaren irekiera samurra (1966-1976). 7. 17/1977 Legea. 8. Euskaltzaindiaren euskal izendegiaren berrargitalpena. 9. 1980ko Zirkularra eta 1983ko Euskal izendegi berria. 10. Izenen inguruko legegintza (1994-2000). 11. Euskal izendegia (2001).

1. Sarrera¹

2003ko martxoaren 27an zendutako Jose Mari Satrustegi euskaltzainak euskal gizarteari eman dion ekarpenik handiena, Euskal Herriko umeen izenetan islatzen da. Orain dela bost hamarkada, gizonezkoen artean izen gehienak José Luis, Francisco Javier, José María, Antonio, José Antonio, José, Manuel, Jesús, Francisco, Ángel, Jesús María eta Miguel Ángel ziren. Azkeneko hamarkadan, ordea, Mikel, Jon, Aitor, Asier, Ander, Iñigo, Iker, David, Xabier, Javier, Unai eta Julen. Emakumezkoetan gauza bera gertatzen da. Orain dela bost hamarkada, Mari Carmen, Begoña, María Jesús, Carmen, María Teresa, Isabel, Pilar, Concepción, Ana María, María Pilar, María Ángeles eta Teresa agertzen zitzaizkigun. Azkeneko hamarkadan, berriz, Leire, Amaia, Nerea, Maria, Ane, Laura, Ainhoa, Andrea, Sara, Marta, Irati eta Cristina². Pertsona bakoitzaren identitatean eragiten duen aldaketa soziologiko hau Espainiako legegintzaren bilakae-raren arabera izan da³.

2. Izenak historian zehar

Onomastika pertsonalak oso garrantzi txikia izan zuen historian zehar, batik bat herritar xumeen artean. Izenak errepikatu egiten ziren, garaiok modari jarraituz, eta apenas zegoen barietaterik⁴. Gainera, familia eta leku berean are gehiago errepikatzen ziren izenak, eta Aro Garaikidean sartu arte

ez zen aldaketa handirik somatu⁵. Esate baterako, A. Zabalza Seguín-ek adierazten du mende modernoetan, Pirinioetako nekazarien familia batzuetan, anaiek izen berbera izaten zutela (Martin zaharra, Martin ertaina eta Martin gaztea), sistema tronkala eta etxearen garrantzia islatuz⁶.

XVIII. mendearen azken laurdenean, Euskal Herriaren Adiskideen Erret Elkarte ilustratukoek pertsona izenen garrantzia azpimarratu zuten lehendabiziko aldiz. Haien ekimenagatik 1781-1784 urteetan Jose Maria Aizpitarrek pertsona izenak euren txikigarri eta erakarpenekin bildu zituen [Euskal] Hiztegi orokorra-ren egitasmorako⁷. Handik gutxira, izenen inguruko legegintza zibila garatzen hasi zen, hasieran Estatu frantsesean, eta, geroago, Espainiakoan⁸.

3. Sabino Aranatik Resurrección M^a de Azkuera

XIX. mendeko azken hamarkadetan berrindartu egin ziren identitate lokal eta nazionalak, eta orokortzen hasi zen haurrak bataiatzerakoan herriko santu edo Ama birjinaren izena ipintzeko joera⁹. Euskal nazionalismoa oinarri-oinarririk hasi zen bere kulturaren eta identitatearen horma eraikitzen. Herriaren berezitasunari gorputza eta zentzua emango ziren euskarri sendo bat behar zuen. Sabino Aranarentzat, hizkuntza erabat funtsezkoa zen nazionalitatea definitzeko¹⁰, eta, beraz, izenak euskaldunak *maketo*-engandik bereizteko identitate zeinurik onenetakoak ziren. Lan horri gogotsu ekin zion Sabino Aranak (1897¹¹, 1898¹²), eta bere jarraitzaile Luis Eleizalde eman zion jarraipena (1910)¹³. Arana eta Eleizalde ez zuten asmatu izenen hizkuntza forma zuzena ematen. Euskararen hizkuntza eta literaturaren ohiturari uko eginez, itzulpenak bortxatu eta neologismoak sartu zituzten, baina, edozein kasutan, aurrerapauso itzela eman zuten onomastika pertsonalaren alorrean¹⁴.

Garai hartan, zailtasunez bete zegoen izen aranatarrekin bataiatzea. 1907an, Gasteizko gotzainak –urte haietan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoakoa izaten zen–, Cadena y Eleta nafar-rak, erabat monarkikoa eta euskal kultur jarduera

1. Lan honetan Itziar ALKORTA IDIAKEZek eta Koro GARMENDIA IARTZAK eskaini didaten laguntza eskertu nahi dut.

2. Honen inguruan, ikus GORROTXATEGI NIETO, 2000; 155-164. orr.; IÑIGO, 2000; 781-783. orr.

3. Izenen legegintzaren inguruan, ikus HUALDE, 2001; 349-358. orr. eta, era zabalago batean, LINACERO DE LA FUENTE, 1992.

4. KNÖRR, 1999; 135-144. orr. JIMENO, 2002.

5. Antzineko Erregimenean izenak paratzerakoan tradizioak zeukan garrantzia eta Zuzenbideak arautzen zuenaren inguruan, ikus LEFEBVRE-TEILLARD, 1990; 37-110. orr.

6. ZABALZA SEGUÍN, 1998; 145-154. orr. IBID., 1999; 77-79. orr.

7. SATRUSTEGI, 2001; 16. orr.

8. LEFEBVRE-TEILLARD, 1990; 113-186. orr.

9. JIMENO ARANGUREN, 1999.

10. CHUECA, 2000; 227. orr.

11. ARANA Y GOIRI, 1897.

12. ARANA Y GOIRI, 1898.

13. ELEIZALDE-ARANA Y GOIRI, 1910.

14. KNÖRR, 1999; 144-146. orr. IÑIGO, 2000; 780. orr.

erotan separatismoa ikusten zuenak, debekatu egin zuen Arana-Elizalderen izenekin bataiatzea, otsailaren 8an prentsan agertutako idatzi gogor baten bidez. Besteak beste, honela zioen bertan:

“La Iglesia española tiene para sus archivos como lengua oficial la castellana y en la diócesis de Vitoria, que es parte integrante de España, por costumbre inmemorial y por expreso deseo de sus sinodales vigentes, todos los documentos que figuren en sus archivos parroquiales han de estar redactados en castellano”.

Dena den, azkenean, haurrak noraezean geldituko zirenaren beldur, altxatu egin zen debekua¹⁵. Baina prelatuak ez zuen amore eman, eta 1910eko otsailaren 7an honako zirkular hau idatzi zuen:

“Varias veces, individuos de ese Partido [el nacionalista] se han dirigido a Nos con descompuertos modales, hasta con cierta clase de amenazas, pidiéndonos que autorizáramos que sus hijos fueran bautizados en vascuence, porque, de otro modo, no consentirían que fuesen bautizados, sin que, a pesar de nuestras paternales reflexiones para hacerlos desistir de sus depravados propósitos, lo hayamos conseguido en la mayoría de los casos”¹⁶.

Erregistro Zibilei dagokienez, 1919an abagune bat zabaldu zitzaizen euskal izenei, maiatzaren 9ko Erret Aginduari esker, zeinak baimena ematen zuen izena edozein erlijiotako egutegira edo antzinako pertsonaia ospetsuengana joz jartzeko¹⁷. Hain zuzen ere, euskararentzat zapaltzaila zen une historiko batean eman zen aukera hau. Madriletik, XX. mendearen hasieran, eskoletan gaztelaniaz irakasteko betebeharrak inposatzen zen, eta irakasle euskaldunek mehatxuak jasotzen zituzten gaztelaniaz irakasteko, eta udalak ere presioak izaten zituzten bizitzako arlo ezberdinetan gaztelaniaz egitearen beharrez konbentzitzeko. Inposaketa hauen aurka, intelektualetan ahots kritikoa altxatu ziren, euskaroen adibidez. Eta, horren haritik, Eusko Ikaskuntzen Lehenengo Kongresua ospatu zuten Oñatin. Hortxe sortu zen Eusko Ikaskuntza (1918), eta, hemendik bertatik, urtebetera, Euskaltzaindia¹⁸. Euskararen Akademiaren hasierako betebeharren artean ez zegoen euskal izendegiaren afera¹⁹.

Beste alde batetik, Eusko Ikaskuntzak oso paper garrantzitsua jokatu zuen 1931ko ekaina-

ren 14an Lizarran onartu zen Autonomia Estatutuaren proiektua prestatzeko lanetan. Bosgarren titulua zen hizkuntzari zuzentzen zitzaiona, eta honela zioen 16. artikulua: “*La lengua nacional de los vascos es el euskera. Ella será reconocida como oficial en iguales condiciones que el castellano*”. Era berean, 17. artikulua xedatzen zuen bi hizkuntzak erabiliko zirela euskal eskola eta lurraldeetan, Diputazio bakoitzari zegokiolarik arauak ezartzea. Funtzionario administratibo eta judizialek euskara jakin beharra zeukaten²⁰.

Errepublikako urte haiek, halaber, aukera berriak eman zizkioten euskarari, lehenengo ikasketetan ipinitako esperantzak erakusten zuen bezala. Garai honetan ugariak ziren euskarazko pertsonen izenak, askotan mozkerak sabiniarra zutenak. Justizia ministroak 1932ko maiatzaren 14an onartutako Aginduak ere izan zuen horrekin zerikusirik, baimena ematen baitzuen izen euskaldunak edo itzuliak ipintzeko, eta baita erlijioso ez ziren batzuk ere²¹.

Giro horretan, R.M. Azkuek –zeinak, arrakastarik gabe, Euskaltzaindian izendegiaren arazo aztertzeke batzorde akademiko bat eratzea eskatu zuen–, *Acerca del santoral vasco*²² artikulua argitaratu zuen 1933an, non, H. Knörrek dioen bezala, oso modu burutsuan bideratu baitzuen gaia. Urte hartan bertan, beste euskaltzain batek erantzun zion Azkueri, Seber Altubek, Eusko Alderdi Jeltzaleko kideak, Aranaren santuen izendegiaren aldeko defentsa matizatu eginez. Eta, ia aldi berean, Nicolás Ormaechea (“Orixe”) idazleak, zeinak, gaiak banaketak sortzen zituela kontuan hartuz, oso ikuspuntu adiskidetsua hartu zuen, Arana-Elizalderen proposamen batzuk ontzat hartuz eta beste batzuk baztertuz²³.

Errealitate hau, ostera, eten egin zen gerra zibilarekin.

4. Gerra osteko legegintza

Bando nazionalaren garaipenaren ostean, hizkuntzaren aurkako erasoak etorri ziren, baina ez praktikan bakarrik, baizik eta baita legegintzan ere.

15. KNÖRR, 1999; 147. or.

16. TORREALDAI; 58-59. orr.

17. KNÖRR, 1999; 147. or.

18. JIMENO JURIO, 1998; 215-218. orr.

19. IÑIGO, 2000; 780. or. GOENAGA, 2000; 15. or.: “*Euskaltzaindiak bere buruari ezarritako betebeharren artean, honako hauek jasotzen ziren: ortografia bateratua finkatzea, maileguei mugak ezartzea, eta hizkuntza modernotzea eta literatura-hizkuntza batu baten alde lan egitea, lexikoan, sintaxian eta grafian*”.

1920an toponimiari buruzko ikerketa lerroa bultzatu nahi zuten, baina ez zen onomastika pertsonalaz deus ere aipatzen (IBID.; 32. or.).

20. JIMENO JURIO, 1998; 225-226 orr.

21. KNÖRR, 1999; 147. or.

22. AZKUE, 1933.

23. KNÖRR, 1999; 146-147. orr.

1936ko abenduaren 7an, Bizkaia eta Gipuzkoako gobernadore zibilak Agindu bat eman zuen ikur nazionalistak desagertzeko, zera argudiatuz:

“No ya solamente por exigencia morfológica, sino por constituir un reto y una afrenta a los sentimientos de todos los españoles, es preciso que desaparezcan todos los signos evocadores del bastardo y vituperable nacionalismo; y, en consecuencia, se advierte a todos los guipuzcoanos que en un plazo de 48 horas han de suprimirse de los rótulos, carteles y anuncios de k, tx, b, etc. con que han violado los nacionalistas el glorioso idioma español, bajo la multa de 500 pesetas, por primera sanción”²⁴.

Agindu honek txarrenetan txarrena aurreikusten zuen euskal onomastikarentzat. Geroago, 1937ko maiatzaren 4an, agintari honek berak, Gida telefoniko berria egin behar zela-eta, Gipuzkoako sare hiritarren zuzendariari agindu zion izen berriak ezartzerakoan kentzeko nazionalismoak mistifikatu eta euskarak deformatu egin zituen hainbat ortografia ikur. Zehazki, jatorrizko ch-ren ordeztu arbitrariorik ipintzen zen tx adierazten zuen²⁵.

Pertsona izenei dagokienez, 1938ko maiatzaren 18an, Tomás Domínguez Arévalo Justizia ministroak Agindu bat eman zuen Vitoria/Gasteizen, Erregistro Zibilean euskarazko izenak debekatu:

“Debe señalarse como origen de anomalías registrales la morbosa exacerbación de algunas provincias de sentimiento regionalista, que llevó a determinados registros buen número de nombres que no solamente están expresados en idioma distinto al oficial castellano, sino que entrañan una significación contraria a la unidad de la Patria. Tal ocurre en las Vascongadas, por ejemplo, con los nombres de Iñaki, Kepa, Koldobika y otros que denuncian indiscutible significación separatista”.

Nolanahi ere, salbuespen bat aurreikusten zuen, euskal izenei irekiera txiki bat uzten ziena:

“debiendo consignarse, no obstante, que hay nombres que sólo en vascuence o en catalán o en otra lengua tienen expresión genuina y adecuada, como Aranzazu, Iciar, Montserrat, Begoña, etc., y que pueden y deben admitirse como nombres netamente españoles, y en nada reñidos con el amor a la Patria única que es España”.

Eta jarraitzen du esanez:

“La España de Franco no puede tolerar agresiones contra la unidad de su idioma, ni la intromisión de nombres que pugnan con su nueva constitución política y con la doctrina del artículo 34 del mencionado Reglamento. Es preciso, por lo tanto, volver al sentido tradicional en la imposición de nombres a los recién nacidos con oportunas variantes (...)”.

1. artikulua ezartzen zuen katolikoei izendegi erromatarreko izenak ipini behar zitzaizkiela, baina, “*tratándose de españoles, los nombres deberán consignarse en castellano*”. Eta 3. artikulua agintzen zuen “*que en las certificaciones de nacimiento, en que los españoles inscritos anteriormente figuren con un nombre expresado en idioma distinto al oficial castellano, se insertará aquél en su traducción castellana*”²⁶.

Agindu hau Justizia Ministerioak 1938ko abuztuaren 12ko beste batekin osatu zen. Azken honen arabera,

“Las arbitrariedades, ilegalidades y anomalías perpetradas por el separatismo y el marxismo en los Registros Civiles, y que han sido comprobados directamente por la Jefatura del Servicio Nacional de los Registros y del Notario en reciente inspección, exigen apremiantes medidas de ordenamiento, lo mismo en cuanto afecta a la validez esencial de los asientos que a las formalidades reglamentarias exigidas para su garantía civil”.

Horren ondorioz, hauxe agintzen zuen:

“En todos los Registros civiles de la zona reconquistada, y en los que ulteriormente vaya liberando nuestro Glorioso Ejército, se observen por los funcionarios a cuya vigilancia inmediata esté encomendado el servicio de las normas contenidas en los artículos siguientes: (...) Artículo 2º. Se considerarán también nulas y sin valor legal las inscripciones que se hallen practicadas en idioma o dialecto distinto al idioma oficial castellano”²⁷.

Araudi horrek nahiko egoera bitxian utzi zituen ordurako izen euskaldun, katalan edo galegoak zeukaten pertsonak, eta, beraz, 1938ko abuztuaren 12an Agindu berri bat eman zen, zera esanez: “*se consideran nulas las inscripciones que se hallan practicadas en idioma o dialecto distinto del idioma oficial castellano*”²⁸. 1939ko otsailaren

24. TORREALDAI, 1998; 89. or.

25. TORREALDAI, 1998; 100. or. Ideia berberak plazaratuz, ikus 1938an Luis Antonio de Vegak argitaratutako *Cuando Maritxu sea Marichu* artikulua (TORREALDAI, 1998; 128-132. orr.).

26. 1938ko maiatzaren 18ko Agindua, 1. art. 1938-V-21eko B.O. Ikus SATRUSTEGI, 2001; 17. or., 27. oharra. TORREALDAI, 1998; 132-133. orr. KNÖRR, 1999; 147-148. orr. EGILERIK AIPATU GABE (Datarik gabe): “Legislación represiva contra la lengua y los nombres vascos”, In: *Boltxevike. Noticias*. (<http://www.boltxe.net/docu/replengua.htm>).

27. TORREALDAI, 1998; 136-137. orr.

28. 1938ko abuztuaren 12ko Agindua, 2. art., 1928-VIII-17ko B.O. Ikus SATRUSTEGI, 2001; 18. or., 28. oharra.

9an, xedapen hauei Agindu berri bat gehitu zitzaian, zeinak 60 eguneko epea ematen baitzien

“a los padres o representantes legales de interesados en inscripciones de nacimientos, que estuviesen viciados con la designación de nombres exóticos, extravagantes y demás comprendidos en la citada disposición [1938ko maia-tzaren 18koa], con el objeto de que puedan solicitar la imposición del nombre o nombres que hayan de sustituir a los declarados ilegales”.
4. artikulua arabera, “el Juez procederá de oficio a tachar el nombre declarado ilegal, una vez que a instancia de parte o de oficio se haya impuesto al inscrito un nombre de los autorizados, haciendo referencia de esta Orden en el margen de las respectivas actas”²⁹.

Legearen debekuak hor zeuden arren, errealitate soziologikoa beste alde batetik zihoan. Esate baterako, norbaitek paperean Manuel izena bazuen ere, familian eta lagunartean Imanol deitzen zioten³⁰. Horrelakoak ekiditeko, 1940ko urriaren 30ean, Gipuzkoako gobernadore zibilak, G. Caballerok, zirkular bat bidali zien probintziako alkateei, zera esanez:

“Por diferentes conductos llega a mi conocimiento que la costumbre, ya en desuso desde la incorporación de Guipúzcoa a la España liberada, de poner o llamar a las personas por nombres “euskéricos”, creación del funesto separatismo vasco, va reapareciendo en algunos puntos de esta Provincia, con la consiguiente protesta, por parte de los elementos españolistas, que con muy buen acuerdo, no pueden consentir que renazca una costumbre que además de herir sus sentimientos patrios, trae a su recuerdo a sus creadores que tanto daño causaron con sus doctrinas al país vasco. Encarezco a V. y al personal dependiente de ese Municipio, se extreme la vigilancia para evitar que hechos de esta naturaleza se produzcan, denunciando a la Autoridad a las personas que recientemente hayan adoptado o puesto a sus familiares dichos nombres y a los que en público así se denominen, procurando extirpar por completo esta costumbre que es contraria a la Unidad y postulados del nuevo Estado”³¹.

Erregistroetan Legea zorrotz betetzen zuten. Jose Mari Satrustegik dioen bezala, Erregistroetako arduradun batzuk Legea bera baino legezale sutsuagoak ziren, eta nagusiaren goratarrea utzi zuten agirietan. Hausnarketa hau M. Gorrotxategik ikertutako kasu baten inguruan egiten du:

Barakaldoko epaitegian, izen euskaldunak *Viva Franco* zioen tanpoi batekin tatxatzen zituzten³². Erregistroetatik kanpo, euskal izenen debekua puntu harrigarrietara ailegatzen zen. Jose Mari Satrustegik *Amaia* Zuloagaren kasua kontatzen digu, zeina 1957an, irakasle ikasketak burutzean, harri eta zur gelditu zen, irakasle titulu ofiziala *Amaia* ez, baino *María Fin* izenean zetorkiola ikusita³³.

Egoera mingarria bihurtzen ari zen. 1949ko urriaren 27an, Bizkaiko gobernadore zibilak honako agindu hau eman zien probintziako alkate guztiei: “*se requiere a los familiares y propietarios de las tumbas o panteones donde figuran inscripciones en vascuence, para que sean retiradas las losas y sustituidas las citadas inscripciones por otras en castellano*”. Agindu honi jarraituz, Gernika-Lumoko alkatea, V. Rojo, urte hartako azaroaren 2an, euskarazko izenak zeramatzatzen hilobien jabeen zuzendutako zitzaien, lehenbailehen plaka horiek kendu eta gaztelaniazkoak ipintzeko eskatuz³⁴.

Eusko Ikaskuntzak ez bezala, Euskaltzaindiak, 1936ko gerra zibilaren ondoren, existitzen jarraitu zuen, euskaltzain asko erbestera tutak bazeuden ere³⁵. Berrogeiko hamarkadan, Aingeru Irigarai eta Koldo Mitxelena, Akademian sartu eta hurrengo hamarkadan, euskal pertsona izenak metodologia zientifiko egoki batez aztertuz, onomastikako ikerketei bultzada eman zioten³⁶.

5. 1957ko Legea eta 1958ko Dekretua

Amaia Zuloaga, zuzeneko itzulpena eginez, *María Fin* bihurtu zutenetik hainbat hilabete igaro ondoren, **1957ko ekainaren 5eko Erregistro Zibilaren Legea** onartu zen³⁷. Bere 54. artikulua esaten zuen: “*En la inscripción se expresará el nombre que se dé al nacido, que debe ser, en su caso, el que se imponga en el bautismo. Tratándose de españoles, los nombres deberán consignarse en alguna de las lenguas españolas*”. Artikulu honek debekatu egiten zituen “*los nombres extravagantes, impropios de personas, irreverentes o subversivos, así como la conversión en nombre de los apellidos o pseudónimos. También se prohíbe la imposición al nacido del nombre de un hermano, a no ser que hubiere fallecido, o cualquier otro que haga confusa la identificación*”.

29. 1939ko otsailaren 9ko Agindua, 1939-II-23ko B.O. Ikus SATRUSTEGI, 2001; 18. or., 28. oharra.

30. Adierazgarria da 1937ko ekainaren 29an *Diario Vasco* egunkarian *Sirimiri* ezizendunak idatzitako artikulua: “*Duele verdaderamente oír que a un chaval le llaman a voz en grito: ¡Imanol! o ¡Joseba! El crío no tiene la culpa ni ha cometido ningún delito para que su propia madre le apedree con esa fonética de volapuk que para andar por casa en alpagatas y mangas de camisa “inventaron” unos cuantos separatistas que se consideraban “eminencias o así”. No pedimos que venga Herodes, pero sí que las emacumes supervivientes se vayan dando cuenta de que hay cosas y nombres que se han acabado “per omnia secula seculorum”. ¿No les basta con supervivir? Supervivir no quiere decir vivir superiormente, ¿eh?”* (TORREALDAI, 1998; 108. or.).

31. TORREALDAI, 1998; 155. or.

32. GORROTXATEGI, 2000; 153. or.

33. SATRUSTEGI, 2001; 18. or.

34. TORREALDAI, 1998; 164. or.

35. GOENAGA, 2000; 17. or.

36. IRIGARAI eta MICHELENA, 1955; MITXELENA, 1956; MITXELENA, 1959.

37. 1957-VI-5eko Legea, BOE, 151 zb., ekainaren 10ekoa. Ikus CIVITAS, 1992; 33-79 orr.

Alderdi positibo modura, esan behar da euskal izenak erabiltzeko baimenak –betiere gaztelaniaz parekiderik ez zeukatenean–, Andre Mariaren baselizen izen ugari ofizialki sartzea erraztu zuela, aurretik *María* eraman behar bazuten ere³⁸.

Beste artikulua batzuek ere eragiten zieten izenei, baina kasu bereziagoetarako zeuden aurreikusita. Horrela, 55. artikulua zioen Erregistroko arduradunak izen-abizen arruntak ipiniko zizkiela filiazio ezeguna zeukaten jaioberriei. 57.ak ezartzen zuen Justizia Ministerioak izen-abizenen aldaketak baimen zitzakeela, aurrez Erregelamenduari jarraituz izapidatutako espediente bat eginez. 59.ak esaten zuen lehen instantziako epaileak indarrean zeuden arauak urratzen zituzten izen-abizenak aldatzea baimen zezakeela, eta baita kanonikoki ipinitakoagatik aldatzea ere, ohiki hau erabiltzen zenean. 60. artikulua zioen aurreko artikuluan aipatutako izen-abizenak aldatzeko beharrezkoa zela arrazoi zuzen bat izatea, eta hirugarrenei kalterik ez egitea. Azkenik, 62.ak zioen izen-abizenak aldatzeko baimenek ez zutela ondoriorik sortuko jaiotze inskripzioaren alboan inskribatzen ez ziren bitartean.

Hurrengo urtean, **1958ko azaroaren 14ko Dekretua** onartu zen, Erregistro Zibilen Legearen Erregelamendua onartzen zuena³⁹. 192. artikulua esaten zuen ezin zirela bi izen bakun baino gehiago jarri, gidoi baten bidez elkartuta edo konposatuta. Izen atzeritarrak ipin zitezkeen, baina hizkuntza espainiarren batean itzulpenik balute, izena ipini behar zuen aukeratuko zuen bertsioa. Debekatu egiten zituen izen estrabaganteak, edota abizenarekin lotzean hala gelditzen zirenak, pertsonaren ohorearen aurkakoak izateagatik. Debekatuta gelditzen ziren, baita, sexuari buruz zalantzak pizten zituzten izenak.

193. artikulua, bestetik, ezartzen zuen Erregistroko arduradunak jaiotzaren inskripzioan gurasoek edo zainzaileek ezarritako izena ipiniko zuela. Eta izenik emango ez balio, edota onartezina balitz –eta hori zen euskarazko izenekin gertatzen zena–, arduradunak haurrari izen bat ipintzea eskatzen zien guraso edo zainzaileei, jakinaraziz izenik ipini gabe hiru egun pasatuz gero, arduradunak berak ipiniko ziola.

1957ko Legea eta 1958ko Dekretua zorrozki aplikatzen ziren Erregistroetan, baina, hauetatik kanpo, jendeak formalki gaztelaniazkoak ziren izenak euskalduntzen jarraitzen zuen. 1965ean,

José Antonio Zarzalejosek, orduan Informazio eta Turismo Ministerioko Bizkaiko Ordezkarri Probintziala zenak, idatzi bat zuzendu zion Prentsaren zuzendari nagusiari, Manuel Jiménez Quilezi, hainbat argitalpenetan euskal izenei egiten zitzaizkien aipamenaz kezkatu baitzegoen. Zarzalejosek txosten bat eskatu zien euskara sakonean ezagutzen zuten bi adituri, baina legeen zorrotasunari ihes egiten zion errealitatean hiru izen mota zeudela aurreratu zien:

“1º. Nombres propiamente vascos y que así constan en la Historia del idioma, que son escasísimos (así Miren).

2º. Nombres que fueron ‘inventados’ por Arana Goiri en su ‘fobia’ y que fueron lingüísticamente repudiados, pero que, no obstante, alcanzaron un uso muy amplio y que son la mayoría de los que se usan (Kepa por ejemplo).

3º. Nombres que son una traducción euskera del castellano correspondiente y que tienen cierta carta de naturaleza en la región (Edurne), dada la frecuencia de su uso.

Dejamos aparte, naturalmente, todas las advocaciones marianas o que tienen una individualidad totalmente correcta desde todos los puntos de vista (Iciar, Aránzazu, Begoña, etc.)”⁴⁰.

6. Erregimenaren irekiera samurra (1966-1976)

1966. urtean, Francoren erregimenaren irekiera kulturala hasten zenean, Euskaltzaindiak, Aingeru Irigaraiek proposatuta, *Nomenclátor Euskérico de nombres de pila aprobado por la Academia de la Lengua Vasca - Euskaltzaindiak onartutako Euskal izendegia* plazaratu zuen⁴¹. Bi urte geroago, Euskaltzaindiaren 50. urteurrenean, Arantzazuko Biltzarrean abiada eman zitzaion euskara batuari⁴², onomastikaren alorrean ere garrantzi itzela izango zuena.

Hirurogeiko hamarkadan, euskarak bultzada berria ezagutu zuen: ikastolen irekierak, euskal literaturaren berpizkundea... eta, guri dagokigunez, euskal izenen moda. 1957ko Legearekin, ponte izenak euskal izendegi murrizta uzten zuen, baina, 60. hamarkadako bigarren erdialdean, izenak Mariaren euskal saindutegi gehiagotara zabaldu ziren, Aitziberren kasua adierazgarria izanik⁴³.

38. KNÖRR, 1999; 148. or.

39. Reglamento para la aplicación de la Ley del Registro Civil, aprobado por Decreto de 14 de noviembre de 1958. BOE, 296 zb., abenduaren 11koa. Zuzenketak, BOE, 18 zb., 1959ko urtarrilaren 21ekoa. Ikus CIVITAS, 1992; 80-225. orr.

40. TORREALDAI, 1998; 174. or.

41. EUSKALTZAINDIA, 1966. Cfr. GORROTXATEGI NIETO, 2001; 23 or.

42. GOENAGA, 2000; 18-20. orr.

43. JIMENO ARANGUREN, 1999.

Emakumezkoen beste izen batzuek, ordea, zalagoa zuten. Jose Mari Satrustegik bi adibide ekartzen ditu gogora: Gabriel Arestik bere alaba bati *Nerea* ipini nahi zion, baina izen kristaua ez zenez, epaileari *San Nereo*-ren emakumezkoaren izena zela argudiatu, eta utzi egin zioten. Bigarren kasua larriagoa izan zen. Epaile batek baztertu egin zuen *Amaia* izena, pertsonentzat trakets, desegokia eta ijitoen deitura zelakoan. Erabaki horren aurka, Iruñeako egunkari batean Satrustegiren iritzi artikulua zorrotz bat argitaratu zen, eta Euskaltzaindiak, 1970eko ekainaren 26an egindako batzarrean, orduko konkordatoaz baliatuz, auzia bertan behera uzteko eskaria zuzendu zion Iruñeako artzapezpikuari. Azkenik, epailearen aurka erabaki zen behingoz Madrilen auzia⁴⁴.

Erregistroetako eztabaiden ondorioz, Euskaltzaindiak izenen inguruko ziurtagiri aunitz egin behar izan zituen. Gauzak horrela, berpiztu egin zen *Euskal Izendegia*-ren proiektua, honen ardura Jose Mari Satrustegik hartuz. Arruazuko euskaltzaina 1961. urtetik zebilen arlo honetako ikerketa lanetan⁴⁵. Egile honek azaltzen duenez, legezko esparrua hain mugatua izanik –gaztelaniazko pertsona izenei bakarrik aitortzen baitziztaien ofiazialtasuna–, bi ataletan lagindu zen emaitza: itzulpenik ez zutenen zerrenda nagusia, alde batetik, eta itzulpendunak bestetik. 50.000 aleko argitalpen arrakastatsu honetan, guztira 700 izen plazaratzen ziren. Edozein kasutan, epaile askok ez zuen euskal izendegia aintzat hartzen, eta, Legeak ematen zien eskubideaz baliaturik, erdaraz idazten zituzten. 1976an, adibidez, Gernikako Erregistroan, haur bati, *Ainara* orde, *Golondrina* jarri zioten⁴⁶.

7. 17/1977 Legea

Francoren heriotzarekin Transizioaren garaia ireki zen (1975), eta, honekin batera, euskal izendegiarentzako garai berria.

1977ko urtarrilean, Estatuko Buruzagitzak 17/77 Legea onartu zuen, 1957ko Erregistro Zibilen Legeko 54. artikulua aldatzen zuena⁴⁷. Atarikoan adierazten zuen 54. artikulua horrek ezartzen zuela

“la necesidad de que los nombres propios de españoles se consignarán en castellano. Esta regla pugna con el hondo sentir popular de los naturales de distintas regiones españolas, que

se ven privados de la posibilidad de que los nombres propios en su lengua vernácula sirvan, dentro y fuera de la familia, como signo oficial de identificación de la persona”.

1977ko Lege berri honen helburua zen

“corregir esa situación, atendiendo, de un lado, al hecho cierto de que la libertad en la imposición de nombres no debe tener, en principio, otros límites que los exigidos por el respeto a la dignidad de la propia persona, y procurando, de otro lado, amparar y fomentar el uso de las diversas lenguas españolas, ya que todas ellas forman parte del fondo autóctono popular de nuestra Nación”.

1. artikulua, indarrean zegoen 1957ko ekainaren 8ko Legeko 54. artikuluko 1. paragrafoa aldatzen zuen, aurrerantzean honela gelditzeko:

“En la inscripción se expresará el nombre que se dé al nacido. Tratándose de españoles, los nombres deberán consignarse en alguna de las lenguas españolas”.

Era berean, 2. artikulua zera esaten zuen:

“A petición del interesado, o de su representante legal, el encargado del Registro sustituirá el nombre propio, impuesto con anterioridad a la vigencia de la presente Ley, por su equivalente onomástico en cualquiera de las Lenguas españolas. La sustitución será gratuita para los interesados”.

Lege honen ondoren, beraz, jaioberrietan edozein hizkuntzako pertsona izenak onartzen ziren, berez horretarako egokiak izanez gero. Denbora berean, aurretik aita-amen gogoaren aurka Erregistroan ipinitako izenak doan aldatzeko bidea irekita utzi zuen arau berriak⁴⁸.

8. Euskaltzaindiaren euskal izendegiaren berrargitalpena

Otsailaren 26ko 573/1976 Erret Dekretuak Euskaltzaindia aitortu zuen eta, aurrerantzean, *Real Academia de la Lengua Vasca/Euskaltzaindia* izena izango zuela adierazi. Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 6. artikulua Euskararen Akademiari esleitzen zion euskara gaietarako aholkularitza ofiziala (1979). Nafarroan, berriz, ez zen 1986. urtera arte Euskaltzaindiaren aholkularitza paper ofiziala arautu, Euskararen Foru Legearen bitartez (3. art.)⁴⁹.

44. SATRUSTEGI, 2001; 18. or. Gizonezkoen izenetan ere zailtasunak zeuden, eta *Eneko* zein *Unai* bezalako izenak jartzeko ekimenek Madrileko epaitegiaren ezezko biribila jasotzen zuten (IBID.; 18. or.).

45. SATRUSTEGI, 1961.

46. SATRUSTEGI, 1972. Ikus SATRUSTEGI, 2001; 19-20 orr., eta IÑIGO, 2000; 781. or.

47. [URRUTIA], 2001; 361-362. orr.

48. SATRUSTEGI, 2001; 20. or.

49. GOENAGA, 2000; 18. or.

17/1977 Legearen onarpenarekin, Jose Mari Satrustegik *Euskal Izendegia*-ren berrikuspun sakon bat eskaini zuen, zerrendari bostehun izen gehituz⁵⁰. Besteak beste, desagertu zen eragozpen nagusiak sortzen zituen itzulpenen baldintza, eta aurretik baztertuak izandako hainbat izen berreskuratzeko lanari ekin behar izan zitzaion⁵¹.

Ordudanik, Euskaltzaindiak handitu egin zuen lurralde bakoitzeko egoitzetan Erregistroetarako ziurtagiriak luzatzeko eta jendeari aholkua emateko ardura. Egun egiten den bezala, Akademiak bere *Euskal Izendegia*-n oinarritzen zuen izenaren egokitasuna, hasiera batean Erregistro Zibiletan ontzat emanez. Zerrenda horretan agertzen ez den izenen bat jarri nahi bada, Euskaltzaindiaren agiri bat behar da. Horretarako, erakunde honen Batzordearen oniritzia jaso behar da. Kasu batzuetan, izen batzuen onarpena herrietako bake epaitegietan egin izan da, Euskaltzaindiaren arauetara uko eginez, izen desegokiak onartuz.

9. 1980ko Zirkularra eta 1983ko Euskal izendegi berria

1980an, izenen legegintzan beste aurrerapauso bat eman zen. Erregistro eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiak uztailaren 2an plazaratutako Zirkular berriak norabide irekiak ematen zituen⁵².

Atarikoan adierazten zuen gizarte espainiarrean eraentza politiko demokratiko eta pluralista ezartzearen ondorioz azken urteetan izandako aldaketa sakonek nahitaez eragin zutela Erregistro Zibileko hainbat alderditan; besteak beste, jaioberriei izen propioak jartzeko irizpideetan. Zentzu honetan, esaten zuen askatasun erlijiosoaren printzipioagatik eta Espainiako herri zein eskualde ezberdinetako ohiturengatik, urtarrilaren 4ko 7/1977 Legeak ezabatu egin zuela bataioan ipinitako izenaren erreferentzia, eta hizkuntza espainiar guztietara zabaldu zuen ordura arte gaztelaniaz bakarrik ipintzeko betebeharra. Honela zioen atarikoan: *“la libertad en la imposición de nombres no debe tener, en principio, otros límites que los exigidos por el respeto a la dignidad de la propia persona”*.

Arlo honetan lege erreforma bat egitearen komenientziaz gain, bere iritzian egokia izango zen indarrean zegoen araudiaren irizpide interpretatiboak bateratu eta egungo errealitate sozial, kultural eta politikora egokitzea, eta, bereziki, 1978ko espainiar Konstituzioan jasotako printzipio eta balioetara.

Zirkularrak honako irizpideak finkatzen zituen jaioberriei izen propioak jartzearen inguruan:

“1º. El principio general es el de libertad de los padres para imponer al nacido el nombre que estimen conveniente y la excepción son los límites y prohibiciones contenidos en los artículos 54 de la Ley del Registro Civil y 192 del Reglamento del Registro Civil y que tienen su justificación en el respeto a la dignidad de la persona del nacido y en la necesidad de evitar confusiones en su identificación.

2º. Tales prohibiciones, por su propia naturaleza, han de ser interpretadas restrictivamente, de modo que no cabe rechazar el nombre elegido por los padres más que cuando claramente y de acuerdo con la realidad social actual aparezca que aquel nombre incide en alguna prohibición legal.

3º. En principio, no pueden considerarse extravagantes, impropios de personas, ni subversivos los nombres que se refieran a valores recogidos por la Constitución.

4º. Para fijar los conceptos, tan subjetivos, de impropiedad y extravagancia, hay que tener en cuenta no sólo la tradición católica, sino la realidad actual de nuestra cultura, sociedad y organización política pluralistas.

5º. El concepto de irreverencia no ha de referirse sólo a la Religión Católica, sino, por imperativo de los principios de libertad religiosa y aconfesionalidad de nuestra Constitución, a todas las creencias religiosas de la sociedad española.

6º. Como consecuencia de los criterios expuestos y conforme a la doctrina de este Centro, puede señalarse, por vía de ejemplo, que son admisibles los nombres extranjeros que no tengan equivalente onomástico usual en las lenguas españolas; los de personajes históricos, mitológicos, legendarios o artísticos, bien pertenezcan al acervo cultural universal, bien al de determinada nacionalidad o región española, los geográficos que en sí mismos, sean apropiados para designar persona y, en fin, cualquier nombre abstracto, común o de fantasía, que no induzca a error en cuanto al sexo”.

Zirkular honek gurasoek haurrari nahi zuten izena ipintzeko eskubide osoa aitortzen zien eta, kristau izenak ez ezik, historia, mitologia, tradizio eta literaturako pertsonaien izenak, eta geografía, arte eder, natur zientzia eta bestelakoetatik zetozenak ontzat ematen zituen. Honen arabera, hiztegiko

50. SATRÚSTEGUI, 1977. Oraingo honetan 60.000 ale argitaratu ziren.

51. SATRUSTEGI, 2001; 20. or.

52. 1980ko uztailaren 2ko Zirkularra, Erregistro eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiarena, izen propioak Erregistro Zibilean inskribatzeari buruzkoa. BOE, 161 zb., uztailaren 5ekoa. Ikus CIVITAS, 1992; 413-414. orr.

kontzeptu abstraktudun edozein hitz, arrunt nahiz fantasiatzko, jar zekiokkeen haurrari⁵³.

Aurrerantzean, euskal izendegiari aukera zabalak irekitzen zitzaizkion. Aukera berriarekin, Jose Mari Satrustegik berriro ere euskal izendegiaren berrikuspenari ekin zion, 1983an argitalpenaren hirugarren edizioa eskainiz, 1.850 izenez osaturikoa⁵⁴.

10. Izenen inguruko legeintza (1994-2000)

Azken hamarkadan, 1983an argitara emanako euskal izendegian ia inolako eraginik izan ez duen legeintza osagarria onartu da, baina Euskaltzaindiak bertara egokitu behar izan du, bai 2001eko azken bertsioa egiterakoan, bai Erregistro Zibilentzako txostenak prestatzerakoan.

Uztailaren 6ko **20/1994 Legeak**, Erregistro Zibilen Legeko 54. artikulua aldatu zuen, aurrerantzean honela esateko⁵⁵:

“En la inscripción (de nacimiento) se expresará el nombre que se da al nacido, si bien no podrá consignarse más de un nombre compuesto ni más de dos simples. Quedan prohibidos los nombres que objetivamente perjudiquen a la persona, así como los diminutivos o variantes familiares y coloquiales que no hayan alcanzado sustantividad, los que hagan confusa la identificación y los que induzcan en su conjunto a error en cuanto al sexo. No puede imponerse al nacido el mismo nombre que ostente uno de sus hermanos a no ser que hubiera fallecido, así como tampoco su traducción usual a otra lengua”.

1999an **40/1999 Legea** onartu zen, azaroaren 5ekoa, izen-abizenei eta beren ordenari buruzkoa⁵⁶. Zioen adierazpenean, honela esaten zuen:

“Transcurridos más de veinte años desde la aprobación de la Ley 17/1977, de 4 de enero, sobre reforma del artículo 54 de la Ley del Registro Civil, que establecía la posibilidad de sustituir el nombre propio por su equivalente onomástico en cualquiera de las lenguas del Estado español, nos encontramos con que cualquier ciudadano que alcance la mayoría de edad y tenga inscrito su nombre en lengua castellana en el Registro civil, se ve privado de la posibilidad de que su nombre propio sea traducido a otra lengua española oficial”.

Horregatik, Lege honek Estatu espainiarreko hizkuntza ezberdinak normaltasunez erabiltzen uzten zuen, eta hizkuntza aberastasuna errespetatuko zuen estatus juridikoa aitortzen.

2. artikulua idazketa berri bat ematen zion Erregistro Zibilen Legeko 54. artikuluari:

“En la inscripción se expresará el nombre que se da al nacido, si bien no podrá consignarse más que un nombre compuesto ni más de dos simples.

Quedan prohibidos los nombres que objetivamente perjudiquen a la persona, así como los diminutivos o variantes familiares y coloquiales que no hayan alcanzado sustantividad, los que hagan confusa la identificación y los que induzcan en su conjunto a error en cuanto a sexo.

No puede imponerse al nacido el mismo nombre que ostente uno de sus hermanos, a no ser que hubiera fallecido, así como tampoco su traducción usual a otra lengua. A petición del interesado o de su representante legal, el encargado del Registro sustituirá el nombre propio de aquél por su equivalente onomástico en cualquiera de las lenguas españolas”.

3. artikulua, bestetik, 1957ko ekainaren 8ko Erregistro Zibilen Legeko 55. artikulua aldatzen zuen, zera esanez: *“El encargado del Registro impondrá un nombre y unos apellidos de uso corriente al nacido cuya filiación no pueda determinarlos”.*

4. artikulua bigarren xedapen gehigarri bat eransten zion Erregistro Zibilen Legeari: *“Todas las peticiones y expedientes relativos a la nacionalidad y al nombre y a los apellidos, las solicitudes de los interesados no podrán entenderse estimadas por silencio administrativo”.*

Legea, urtarrilaren 4ko 17/1977 Legeko bigarren artikulua derogatzen zuen Xedapen indargabetzailearekin osatzen zen, Erregistro Zibileko Legearen 54. artikulua erreformatzekoa. Era berean, Lege horretan jasotakoaren aurka zihozten xedapen orokor guztiak ere derogatu egiten zituen.

40/99 Legeko azken xedapenak Gobernuaren esku uzten zuen hiru hilabeteko epean Erregistro Zibilen Erregelamendua aldatzeko eginbeharra, Legean aurreikusitakora egokitzearen. Horregatik, 2000ko otsailaren 11n **193/2000 Errege Dekretua** onartu zen, Erregistro Zibilen Erregelamendua izen-abizenei buruz jasotako zenbait artikulua aldatzeko helburuarekin⁵⁷.

Erret Dekretu honen helburua, legean jasotako agindua betetzea zen nagusiki. Bere artikulua bakarrak, Erregistro Zibilen Erregelamenduko

53. SATRÚSTEGUI, 1983; 5-7. orr. SATRÚSTEGUI, 2001; 20. or.

54. SATRÚSTEGUI, 1983. Honetaz, 50.000 ale argitaratu ziren.

55. 20/1994 Legea, uztailaren 6koa (BOE, 1994ko uztailaren 7koa).

56. 40/1999 Legea, azaroaren 5ekoa (BOE, 266 zb., 1999ko azaroaren 6koa). Ikus URRUTIA, 2001; 359-361. orr.

57. 193/2000 Errege Dekretua, otsailaren 11koa. Ikus URRUTIA, 2001; 362-363. orr.

192. artikulua aldatzen zuen, 1958ko azaroaren 14ko Dekretuan onartua. Honela zioen idazketa berriak:

“No se podrán imponer más de dos nombres simples o más de uno compuesto. Cuando se impongan dos nombres simples, éstos se unirán por un guión y ambos se escribirán con mayúscula inicial.

Se considera que perjudican objetivamente a la persona los nombres propios que, por sí o en combinación con los apellidos, resultan contrarios al decoro.

La sustitución del nombre propio por su equivalente onomástico en cualquiera de las lenguas españolas requerirá, si no fuese notorio, que se acredite por los medios oportunos esta equivalencia y la grafía correcta del nombre solícitado”.

11. Euskal izendegia (2001)

Euskal Izendegia-ren azken argitalpenetik aurrera (1983), Euskaltzaindiak eta legegintzak arauturiko irizpideei jaramonik egin gabe, ugaritu egin ziren bestelako euskal izenen hiztegiak⁵⁸. Egoera larri honi aurre egiteko, Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeak gidaturik, izendegiaren proiektu berria abiatu zen. Bere helburuen artean, hutsuneak betetzea, hizkuntzari zor zaion duintasuna zaintzea, bilduma fidagarria eskaintzea eta gurasoek gogoko izan ditzaketen beste izen batzuen aukera zabalagoa ematea zeuden⁵⁹. Lanak Jose Mari Satrustegiren izendegia izan zuen abiapuntu, eta Mikel Gorrotxategi Nieto eta Patxi Salaberri Zaratiegik irizpide filologikoak azalarazi zituzten estreinako aldiz. Lan horretan Andres Iñigo Ariztegi, Henrike Knörr Borràs, Jose Luis Lizundia Askondo, Txomin Peillen Karrikaburu eta Juan San Martin Ortiz de Zarateren iritzia ere kontuan hartu ziren.

Legegintzari dagokionez, euskal izendegi honetan gogoan izan ziren, Henrike Knörren hitzetan, “aldioro hizkuntzaren aldetukako egokitasuna, izen-eramaileari zor zaion duintasuna eta beharrezkoa den sexu bereizketa. Baldintza haue-tatik azken biak indarrean dagoen Espainiako legeak espresuki aipatzen ditu. Baldintza horiez landa, izendegi honetan kontuan eduki dugu legeriak izena hautatzeko gurasoei –edota adinetara helduei– ematen dien askatasuna. Askatasun horrek, jakina, informazio aski izatea eskatzen du, halako moduz non izen desegokiak ezartzea saihets daitekeen”⁶⁰.

Jose Mari Satrustegik dioen bezala, *Euskal Izendegiak* ehun urte luzeko historia egin du Hego Euskal Herrian, “*arerio guztien aurkako lan, neke eta borroka latzarekin*”⁶¹. Arerio horiek Espainiako legegintza erabili izan dute euskal izendegiaren aurka jotzeko. Baina legea leundu egiten zen heinean, Euskaltzaindiatik bultzada handia ematen zitzaion euskal izendegiaren ikerketari, eta ikerketa hauen emaitzak segituan islatzen ziren gizartearen portae-ran, nahiz eta aurretik epaitegietan Eneko, Unai eta Amaia bezalako izenak defendatu behar izan.

Bibliografia

- ARANA Y GOIRI, Sabino. *Egutegi Bizkattarra*, Bilbo, 1897.
- ARANA Y GOIRI, Sabino. *Egutegi Bizkattarra. Ormakua*, Bilbo, 1898.
- AZKUE, Resurrección María de. “Acerca del santoral vasco”, In: *Euskera*, 14, 1933; 60-99. orr.
- CIVITAS. *Legislación sobre Registro Civil*, Madril: Civitas, 9. argitalpena, 1992.
- CHUECA INTXUSTA, Josu. “El nacionalismo vasco y el euskera (1893-1936)”, In: R. Jimeno Aranguren (koord.), *El euskera en tiempo de los éuskaros*, Iruñea: Gobierno de Navarra-Ateneo Navarro/Nafar Ateneoa, 2000.
- EGILERIK AIPATU GABE (Datarik gabe): “Legislación represiva contra la lengua y los nombres vascos”, In: *Boltxevike. Noticias*. (<http://www.boltxe.net/docu/replengua.htm>).
- ELEIZALDE, Luis; ARANA Y GOIRI, Sabino. *Deun-ixendegi euzkotarra edo deunen ixenak euzkeratuta*, Bilbo, 1910.
- EUSKALTZAINDIA. *Nomenclátor Euskérico de nombres de pila aprobado por la Academia de la Lengua Vasca. Euskaltzaindiak onartutako Euskal izendegia*, Bilbo: La Gran Enciclopedia Vasca, 1966.
- GOENAGA, Patxi. “Euskaltzaindia eta euskararen arautzea”, In: *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, 45-1, 2000; 11-42. orr.
- GORROTXATEGI NIETO, Mikel. “Evolución del nombre de pila en el País Vasco peninsular”, In: *Fontes Linguae Vasconum*, 83, 1996; 151-168. orr.
- “Euskal izendegia gauzatzeko erabilitako irizpideak”, In: *Euskal izendegia. Ponte izendegia. Diccionario de nombres de pila. Dictionnaire des prénoms*, Vitoria/Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia; Bilbo: Euskaltzaindia, 2001; 23-25. orr.

58. Cfr. IRIGOIEN, 1994; 12. or. IÑIGO, 2000; 786. or. KNÖRR, 2001; 10. or. SATRUSTEGI, 2001; 11-12 orr.

59. SATRUSTEGI, 2001; 11. or.

60. KNÖRR, 2001; 9-10. orr.

61. SATRUSTEGI, 2001; 21. or.

- GORROTXATEGI NIETO, Mikel; SALABERRI ZARATIEGI, Patxi; SATRUSTEGI ZUBELDIA, Jose Mari. *Euskal izendegia. Ponte izendegia. Diccionario de nombres de pila. Dictionnaire des prénoms*, Vitoria/Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia; Bilbo: Euskaltzaindia, 2001.
- HUALDE SÁNCHEZ, José Javier. "El derecho al nombre", In: *Manual de Derecho Civil I. Introducción y derecho de la persona*, Madrid: Marcial Pons, 2001; 349-358. orr.
- IÑIGO, Andres. "Onomastika euskararen normalizazioan", In: *Euskera*, 45-2, 2000; 775-791. orr.
- IRIGARAI, Aingeru; MICHELENA, Luis. "Nombres vascos de persona", In: *Anuario de Filología Vasca Julio de Urquijo*, II, 1955; 107-127. orr.
- IRIGOIEN, Alfonso. *Pertsona-izenak euskaraz nola eman (eta exotoponymiaz eraskin bat)*, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 1994.
- JIMENO ARANGUREN, Roldán. "Sainduen debozio familiarra antroponimiaren bidez Nafarroan", In: *Vasconia. Cuadernos de Historia-Geografía*, 28, zenbaki monografikoa: V. Tokiko Historiako Jardunaldiak. Familia Euskal Herrian, Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1999; 127-142. orr.
- JIMENO ARANGUREN, Roldán. "Religiosidad y grupos sociales en Navarra: perspectivas de estudio", In: *Grupos sociales en Navarra. Relaciones y Derechos a lo largo de la Historia*. III. *Ponencias del V Congreso de Historia de Navarra*, Iruñea: Sociedad de Estudios Históricos de Navarra, 2002; 421-442. orr.
- JIMENO JURÍO, José María. *Navarra. Historia del Euskera*, Tafalla: Txalaparta, 1998.
- KNÖRR, Henrike. "Nombres de persona en el País Vasco: cuestiones históricas y de normalización", In: *Fontes Linguae Vasconum*, 80, 1999; 135-154. orr.
- KNÖRR, Henrike. "Hitzaurrea", In: *Euskal izendegia. Ponte izendegia. Diccionario de nombres de pila. Dictionnaire des prénoms*, Vitoria/Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia; Bilbo: Euskaltzaindia, 2001; 29-30. orr.
- LEFEBVRE-TEILLARD, Anne. *Le nom. Droit et Histoire*, Paris: Presses Universitaires de France, 1990.
- LINACERO DE LA FUENTE, María. *El nombre y los apellidos*, Madrid: Tecnos, 1992.
- MICHELENA, Luis. "Introducción fonética a la onomástica vasca", In: *Emerita*, XXIV, 1956; 167-186. orr.
- MICHELENA, Luis. "Sobre-a en nombres vascos de persona", In: *Euskera*, IV, 1959; 5-10. orr.
- SATRUSTEGI, José María. "Aportación al estudio de la onomástica tradicional vasca", In: *Euskera*, VI, 1961; 209-229. orr.
- SATRUSTEGI, José María. *Euskal Izendegia. Nomenclátor onomástico vasco*, Iruñea: Banco la Vasconia, 1972.
- SATRUSTEGI, José María. *Euskal Izendegia. Nomenclátor onomástico vasco*, Iruñea: Banco la Vasconia, 2. argitalpen berrikusia, 1977.
- SATRUSTEGI, José María. *Euskal Izendegia. Nomenclátor onomástico vasco*, Bilbao: Euskadiko Kutxa, 3. argitalpen berrikusia, 1983.
- SATRUSTEGI, José María. "Pertsona izenen historia", In: *Euskal izendegia. Ponte izendegia. Diccionario de nombres de pila. Dictionnaire des prénoms*, Vitoria/Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia; Bilbo: Euskaltzaindia, 2001; 11-21. orr.
- TORREALDAI, Joan Mari. *El Libro Negro del Euskera*, Donostia: Ttartalo, 1998.
- URRUTIA, Andrés. "Legislación sobre el nombre", In: *Euskal izendegia. Ponte izendegia. Diccionario de nombres de pila. Dictionnaire des prénoms*, Vitoria/Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia; Bilbo: Euskaltzaindia, 2001; 359-363. orr.
- ZABALZA SEGUÍN, Ana. "Con nombre y apellido. Casa e identidad en la Navarra del Antiguo Régimen", In: *Ponencias del IV Congreso de Historia de Navarra: Mito y realidad en la historia de Navarra*, III, Iruñea: Sociedad de Estudios Históricos de Navarra, 1998; 135-154. orr.
- ZABALZA SEGUÍN, Ana. "La Historia de la Familia en Navarra. Una aproximación cualitativa", In: *Cuadernos de Investigación Histórica*, 17, 1999; 67-80. orr.